

LEHENENGO HIZKUNTZA ESKAKIZUNA

Hizkuntzen Europako Erreferentzia Marko Bateratuaren B1 maila

MINTZAMEN PROBA

- Saio bakoitzean bi azterketarik hartuko duzue parte.
- Probak aurkezpena eta bi ariketa izango ditu. Atal guztiak egin behar dira.
- Aldez aurretik ez da ezer prestatu behar.
- Egin beharreko probaren alderdiren bat ulertzen ez baduzu, azterketa hasi baino lehen, epaimahaiari eskatu beharko diozu zalantzak argitzeko.
- Saioa grabatu egingo da.

| | PROBAREN EZAUGARRIAK | AURREIKUSITAKO DENBORA | PUNTUAZIOA (GEHIENEZ) | PUNTUAZIOA (GUTXIENEZ) |
|------------------------|--|---------------------------|--------------------------|---------------------------|
| MINTZAMEN PROBA | <p>Aurkezpena</p> <ul style="list-style-type: none"> • Ez da ebaluatuko. • Labur-labur bakoitzak bere burua aurkeztuko du (Izen-abizenak eta NANA). <p>1. ariketa: Bakarrizketa</p> <ul style="list-style-type: none"> • Gai baten inguruko bi fitxa banatuko dira. • Argazki batean ikusitakoaren gainean iritzia eman behar diozu azterketakideari. • Denbora: 1 min fitxa begiratzeko, eta 3 min iritzia emateko. • Batak bukatzen duenean, besteak ekingo dio. • 15 puntu. <p>2. ariketa: Elkarrizketa</p> <ul style="list-style-type: none"> • Gai baten inguruko fitxa banatuko zaizue. • Adostasun batera iristeko egoera bat aurkeztuko zaizue. Helburua negoziatzea eta informazioa trukitzea da. • Denbora: 1 min fitxa begiratzeko, eta 6 min elkarrizketan aritzeko. • 15 puntu. | 15-20 min | 30 | 15 |

1. ariketa. Eman zure iritzia gai honi buruz

- Komentatu argazkia eta esaldiak.
- 1 min duzu fitxa begiratzeko eta 3 min iritzia emateko.

AUTOBIDEAN, 120 ALA 130 KM ORDUKO?



Muga 120an badago, istripuak izateko arrisku gutxiago dago.

Muga 120an badago, denbora gehiago behar da helmugara heltzeko.

AUTOBIDEAN, 120 ALA 130 KM ORDUKO?



130era joatea logikoagoa da autoak eta errepideak horretarako prestatuta daude eta.

130era joanda, erregaiaren kontsumoa handiagoa da; ondorioz, garestiagoa da eta kutsadura gehiago sortzen da.

1. ariketa. Eman zure iritzia gai honi buruz

- Komentatu argazkia eta esaldiak.
- 1 min duzu fitxa begiratzeko eta 3 min iritzia emateko.
- Ebaluatzerakoan, hauexek hartuko dira kontuan:
 - Gaiari heldu diozun.
 - Esaten duzuna ulergarria den.
 - Euskara nola erabiltzen duzun: jarioa, zuzentasuna eta aberastasuna.

AUTOBIDEAN, 120 ALA 130 KM ORDUKO?



Muga 120an badago, istripuak izateko arrisku gutxiago dago.

Muga 120an badago, denbora gehiago behar da helmugara heltzeko.



1. ariketa. Eman zure iritzia gai honi buruz

- Komentatu argazkia eta esaldiak.
- 1 min duzu fitxa begiratzeko eta 3 min iritzia emateko.
- Ebaluatzerakoan, hauexek hartuko dira kontuan:
 - Gaiari heldu diozun.
 - Esaten duzuna ulergarria den.
 - Euskara nola erabiltzen duzun: jarioa, zuzentasuna eta aberastasuna.

AUTOBIDEAN, 120 ALA 130 KM ORDUKO?



130era joatea logikoagoa da autoak eta errepideak horretarako prestatuta daude eta.

130era joanda, erregaiaren kontsumoa handiagoa da; ondorioz, garestiagoa da eta kutsadura gehiago sortzen da.

2. ariketa

Gaiaren inguruko bat-bateko elkarrizketa egingo duzue orain.

- Kontuan hartuko dugu zenbat/nola parte hartzen duzuen.
 - Materiala eman (bakoitzari bere fitxa).
 - Zer egin behar duten azaldu.

■ Egitekoa:

IRAGARKIAK, NON?

Pentsa ezazue bikotea zaretela, eta etxebizitza bat alokairuan ipini nahi duzuela. Orain, zuek **plana egin** behar duzue iragarkiak non jarri erabakitzeko.

Begiratu argazkiak eta komentatu leku horietan iragarkiak ipintzearen alde onak eta txarrak. Ondoren, adostu bion artean zein ezaugarri dituen etxebizitzak eta zergatik alokatu nahi duzuen, eta erabaki non jarriko dituzuen iragarkiak, ordaintzeko prest zaudeten ala ez, zer datu jarriko duzuen eta zer ez...

- 1 min duzue fitxa begiratzeko, eta 6 min inguru elkarren artean elkarrizketa egiteko.

Jardunaren bitartean:

- Hitz egiten utzi eta denbora kontrolatu.
- Beharrezkoa bada, esku hartu, moztu, txanda aldatu...
 (komunikazioa eteten bada, desoreka badago, ekoizpena laburregia bada).
- Horretarako, hemen dituzu galdera osagarriak.

Galdera osagarriak:

- Non begiratzen dituzue iragarkiak?
- Horrelako egoeraren batean egon zarete inoiz?
- Iragarkiak jartzeko eta begiratzeko orduan, aldatu al dira jendearen ohiturak?

IRAGARKIAK, NON?

